



2017-2020 Plan Estrategikoa

Barrualde-Galdakao ESI



Plana diseinatzeko erabilitako metodologia

Zuzendaritza Batzordeak (Zuzendaritza Taldeak eta ESlaren esparru ezberdinetako arduradunen ordezkari-tza batek osatutakoak) bileran proposatu dituzten ziklo estrategiko berriaren iraupena, XEDEAREN eta BALIOEN jarraipena eta, aldi berean, IKUSPEGI berria eta plan horren oinarri diren bost ardatzak definitu ditu. Ardatz horietako bakoitzean landu beharreko hainbat erronka hartu dira kontuan, baita lehenetsi ere. Horretarako, Zuzendaritza Batzordeko kideek zuzendu zituzten 15 lantalde osatu ziren. Lantalde horietan 161 pertsonen parte hartu zuten. Horiek proposatutako erronkekin lotutako hainbat helburu eta proiektu definitu zituzten. Helburu eta proiektu horiek beste 219 pertsonekin partekatu ziren; hau da, talde horiekin alderatu zituzten, eta azken horiek egindako lanaren gaineko ikuspuntua eman zuten.

Bestalde, ESlaren interes-taldeen 170 ordezkarien parte hartzea izan dugu, haien itxaropenak eta beharrak ezagutzeko eta haien ekarpenak planean txertatzeko aukera baloratzeko.

Zuzendaritza Batzordeak aurreko informazio eta ekarpen guztiak hautatu, sailkatu eta lehenetsi zituzten, 2016ko abenduan onartu zen behin betiko 2017-2020 Plan Estrategikoaren Zuzendaritza Taldeari proposamenak egiteko.

Ziklo berri bat

Ziklo estrategiko berri honi hasiera ematen diogu, orain dela 3 urteko ESI berriaren sormenarekin hasitako lan ona finkatzeko eta sakontzeko itxaropenarekin eta helburuarekin. Eta horretarako, gure egiturak eskaintzen dituen aukera guztiak, gure profesionalen duten ezagutza eta lehenengo hiru urte hauetan bizitzeko esperientzia dauzkagu.


Horren emaitza 2017-2020 Plan Estrategiko hau da, Osakidetzaren estrategiarekin lerrotatuta dagoena, eta gure profesionalen eta interes-taldeen definitu, adostu eta landu dutena. Plan hau guk egin dugu eta guretzat egin dugu, eta ardatz bakoitzak, helburu bakoitzak, proiektu bakoitzak, kontzeptu bakoitzak eta horren hitz bakoitzak gizartearekiko konpromiso zehatza dauka. Helburu komun batekin, modu koordinatuan, lan egiten duen taldea izan nahi dugu. Erronka nagusia gure herritarren osasuna hobetzea da. Horretarako, eta berezko kudeaketa-eredu bat oinarri izanik, lortutako emaitzak neurtzeko eta horiek eraginkorrak direla bermatzeko lan egin beharko dugu, gure osasun-sistemaren hobekuntzan eta horren iraunkortasunean lagunduz.

Eskerrak eman nahi dizkizuet plan hau egiten lan egin duzuen guztioi, bereziki Zuzendaritza Batzordeari eta, jakina, errealitate bihurtu dadin egunero lan egiten duzuen guztioi. Harro sentitu nahi dugun erakunde handi baten parte gara, eta gure pazienteei gauza bera sentiarazi behar diegu.

Eskerrik asko.

Jon Guajardo

ESlaren zuzendari gerentea



Xedea

Gure herritarren osasuna kalitatearekin, segurtasunarekin eta iraunkortasunarekin hobetzeko lan egiten dugu.

Ikuspegia

2020an gure erakundea **honelakoa izatea nahi dugu:**

- Komunitatearekin **elkarlanean** modu **integratuan** lan egiten duena.
- Herritarren **osasunaren hobekuntzan emaitzak lortzera** zuzendutakoa, **ezagutza eta berrikuntza** eskainiz, eta osasun-sistemaren **iraunkortasunean** lagunduz.
- **Profesionalak eta herritarrak** osasunaren zainketan **inplikatu** eta partaide egiten dituen, **konfiantza** sortuz, eta ematen duen arreta **humanizatuz**.

Balioak

BERRIKUNTZA: etengabe irekita gaude aldaketara, inkonformistak gara, alternatiba berrien bila gabiltza, profesionalen sormena garatzen dugu eta okertzeko arriskua onartzen dugu.

PROFESIONALITASUNA: jakintzarekin eta ezagutzarekin konpromisoa hartzen dugu, gure jardura bakoitzean saiatzen gara eraginkortasuna, efizientzia eta etika sozialemo eta bioetikako irizpideak bateratzen.

LIDERGOA ETA TALDEKO LANA: helburuak, ideiak, ezagutza eta informazioa partekatzen ditugu eta diziplina anitzeko testuingurua sortzen dugu, bertan parte-hartzeak eta lankidetzak bat egiten dutelarik nork bere ardurak hartzearekin, eta gure langile guztiak errespetatzen ditugu eta aitortza egiten diegu.

GERTUTASUNA: pertsonentzako lan egiten dugun pertsonak gara, denbora eta energia inbertitzen dugu errespetua, adeitasuna, erosotasuna, komunikazioa eta segurtasuna eskaintzeko.

KONPROMISOA: zerbitzatzen dugun gizartearekin. Lankidetzan aritzen gara osasun-sistemako gainerako eragileekin, eta sistemaren jasangarritasuna bultzatu, irisgarritasuna bermatu eta gardentasuna sustatzen dugu.

5 ardatz oinarri ditugula lan egiten dugu

1. Ardatza: Pazientea / Herritarra

Gure herritarren osasuna -kalitatezkoa eta segurua-hobetzea, osasun arreta integralaren bidez, komunitatearekin elkarlanean

2. Ardatza: Profesionalak

Pertsonen protagonismoa ematea, haien garapen profesionala eta ezagutza indartuz, lidergoa eta taldeko lana sustatuz

3. Ardatza: Integrazioa

Zeharkako arreta-eredua garatzea, pazienteak eta herritarrak ardatz izanik, kudeaketa integratuko egituren bidez

4. Ardatza: Iraunkortasuna

Osasun-sistemaren gizarte, ingurumen eta ekonomia iraunkortasunaren alde egitea

5. Ardatza: Ezagutzaren, ikerkuntzaren eta berrikuntzaren kudeaketa

Gure herritarren osasunean eragina duen ezagutza sortzea, ikerkuntzaren eta berrikuntzaren bidez

1. Ardatza:
Pazientea /
Herritarra

Gure herritarren osasuna kalitatezkoa eta segurua hobetzea, osasun arreta integralaren bidez, komunitatearekin elkarlanean.

Nola egingo dugu?

- **Ematen dugun asistentzia humanizatuz**, gure herritarrekin eta pazienteekin harreman zuzena izanik. Pertsonak zaintzen ditugun pertsonak gara.
- **Osasunaren sustapena**, bizimodu osasungarriak eta **gaixotasunaren prebentzioa** bultzatuz, eta **komunitatearekiko eta esparru soziosanitarioarekiko elkarlana** sustatuz.
- **Arreta-prozesu guztietan, segurtasun kliniko** gorenaren bermatuz.
- Ematen dugun **zerbitzuaren eraginkortasuna** ezagutuz, **populazioaren ikuspegiaren**, eta osasuneko **emaitzei buruzko informazioaren analisiaren** bidez.
- **Herritarrek** haien beharren araberako **osasun-zerbitzuak jasotzen dituztela** bermatzea.



Honelako proiektuen bidez:

Ingresatuta dauden gure pazienteen **loaldiaren kalitatea** hobetzea, haien egonaldian zehar ematen diren etenaldiak murriztuz

Min akutuari eta kronikoari **aurre egiteko prozesua** ibilbide asistentzialesan integratzea, zeharkako elementu gisa

Zaintzaileari laguntzeko estrategia definitzea

ESlaren **populazioaren ikuspegi bat** garatzea, esku-hartzeak zuzentzeko osasun-behar ezberdinen arabera (osasun-mapak)

Gure pazienteen **atxikimendu terapeutikoa** hobetzea

Segurtasun klinikoa hobetzea **arlotan kirurgikoan**

Gure herritarrek haien **lehenasunezko hizkuntzan** arreta jasotzeko aukera sustatzea

“Kerik gabeko Erakunde Sanitarioak” Europako proiektua garatzea


Osasuneko tokiko sareen garapenearekin jarraitzea

2. Ardatza: Profesionalak

Pertsonei protagonismoa ematea, haien garapen profesionala eta ezagutza indartuz, lidergoa eta taldeko lana sustatuz.

Nola egingo dugu?

- **Kalitatezko eta erraz eskuratzeko moduko etengabeko prestakuntza** bermatuz, gure erakundearen jarduera sistematizatu gisa.
- **Langile guztiekiko komunikazio eraginkorra, gertukoa eta irisgarria** sustatuz, **komunikazio bide erabakitzaileak** sustatuz eta erraztuz. Erabakiak modu egokian hartzeko, maila bakoitzean garrantzitsua den informazioa izatea.
- **Helburuak betetzea motibatzen eta sustatzen duten, eta taldeko lana**-diziplina artekoa eta diziplina anitzekoa- **dinamizatzen duten, liderren** garapena sustatuz.
- **Ezagutzaren eta konpromisoaren** alde eginez, **profesionalen, lantalde operatiboen eta abarren topalekuak** sustatuz.
- Profesional guztien **laneko segurtasunaren eta osasunaren hobekuntzan** aurrera eginez.



Honelako proiektuen bidez:

Profesionalen lanaldian prestakuntzara zuzendutako **denbora kudeatzea**

Esparru eta maila ezberdinetako **liderrek izan behar dituzten gaitasunak** definitzea, hautaketa, konpromisoa, prestakuntza eta ebaluazioari dagokionez

Prestakuntza-plana definitzea, profesionalen beharren arabera, eta prestakuntza-**bide berriak** garatzea, Barrualde-Galdakao ESlaren Prestakuntzaren kalitatea eta aplikagarritasuna **ebaluatzea**

Profesionalen **arteko ezagutza partekatze bideak** ezartzea

Profesionalak modu egokian **informatzea**; hau da, haien laneko eremua edo lanpostua garatzeko beharrezko arlo esanguratsuen gaineko informazioa, behar besteko denboraz jakinaraztea, baita horren edukia ere, eta beharren eta/edo lehenetasunen arabera **informazio zatikatua** ematea


Laneko segurtasuna eta osasuna errazteko **adinaren kudeaketari heltzeko plana**

3. Ardatza: Integrazioa

Zeharkako arreta-eredua garatzea, pazienteak eta herritarrak ardatz izanik, kudeaketa integratuko egituren bidez

Nola egingo dugu?

- **Integrazio asistentziala errazten duten kudeaketa klinikoko egiturak eta tresnak** garatuz, profesionalen erantzukizuna areagotuz. Maila asistentzial eta arreta-talde ezberdinen artean, modu koordinatuan, lan eginez, gure pazienteei kalitatezko etengabeko arreta eskaintzeko.
- **Pazientearen jarraipen asistentziala** bermatuz, gure herritarrei eragiten dieten patologia nagusien **ibilbide asistentzialak garatuz**, erakunde osoan gure asistentzia eta kudeaketa eredua hedatuz eta barneratuz.



Honelako proiektuen bidez:

Kudeaketa integratuko unitateak (KIU) finkatzea eta hedatzea, haien ahalmena handituz haien eragin-eremua kudeatu dezaten, eta **hesiak eta zailtasunak ezabatzea** tokian tokiko integrazio asistentzialesko prozesuan

Diziplina anitzeko kudeaketako taldeen garapena sustatzea, kudeatzeko -erabakitze eta ebazteko ahalmendunak-prozesu asistentzial garrantzitsuenetarako

Zeharkako **kudeaketa klinikoko tresnak** ezartzea, partekatutako prozesu asistentzialesetarako, **helburu eta adierazle komunekin**, eta, maila ezberdinetako unitate eta/edo zerbitzuei eragingo dizkietenak

Ibilbide asistentzialak identifikatzea eta garatzea, prebalentzia edo eragin kliniko aintzat hartuz, komunitatearekin eta erakunde soziosanitarioekin egon daitezkeen aliantzak kontuan izanik

4. Ardatza: Iraunkortasuna


Osasun-sistemaren gizarte, ingurumen eta ekonomia iraunkortasunaren alde egitea.

Nola egingo dugu?

- **Preskripzio farmakologikoa** optimizatuz, lehenetsiz eta egokituz, **azterketa osagarriak eta prozedura terapeutikoak** eginez; gure zerbitzuen eskaintzan egokitzapenik handiena lortzeko lan eginez.
- **Erabilitako baliabideen eta gure zerbitzuen eraginkortasuna** sustatuz, gure informazio-sistemen errendimendua handituz **erabakiak hartzerako orduan**.
- Gure erakundearen **governantza-ereduan** aurrera eginez, **gardentasunarekin, Erantzukizun Sozial Korporatiborantz (ESK) zuzenduz, herritarren parte hartzea** eta gizartearekin **osasunaren gaineko ko-erantzukizuna** sustatuz.



Honelako proiektuen bidez:



5. Ardatza:
Ezagutzaren,
ikerkuntzaren
eta
berrikuntzaren
kudeaketa

Gure herritarren osasunean eragina duen ezagutza sortzea, ikerkuntzaren eta berrikuntzaren bidez.

Nola egingo dugu?

- Gure erakundeak **profesionalen irakaskuntzan, bai gradu-aurrekoan zein graduondokoa**, daukan rolaren **garapena** sustatuz, **azken horientzat erreferente** bihurtzeko.
- **Ikerkuntzaren eta berrikuntzaren kudeaketa** sistematizatuz, inplikaturiko agente guztien parte-hartzearekin; ikerkuntzari eta berrikuntzari laguntzeko eta hori sustatzeko **egitura egonkorra eta profesionala** bermatuz.
- **Ezagutza** sortzea, **ikerkuntza eta berrikuntza lerro** esanguratsuenak lehenetsiz, **emaitzak praktika klinikoan eta kudeaketan** aplikatuz, eta modu sistematizatuan hedatuz.



Honelako proiektuen bidez:

Gradu-aurreko irakaskuntza-eskaintza handitzea, aliantzak lortuz hezkuntza-sektorearekin

Ikerkuntza garatzeko arazo gehien dituzten taldeen kasuan, **ikerkuntza integratzea eta laguntzea**: adibidez, **lehen mailako arretan eta erizaintzan laguntzea**, lehenetasun handiena duten eremuak identifikatuz

Zerbitzuen **irakaskuntza** espezializatuaren **egiaztatzea** areagotzea, eta beste ospitaleekiko elkarlana sendotzea eta indartzea; Galdakao-Usansolo Ospitalean barne mediku egoiliarren errotazio-kopurua handiagoa izan dadin

Euskal Osasun Sistema Publikoaren Berrikuntza Ekintza Planean ezarritako oinarriak gure erakundeari egokitzea

Gure ikerkuntza sendotzea kanpoaldera begira, unibertsitateko eta Euskal Herriko beste ikerkuntza-zentroetako **ikerketataldeetan sartzeari** sustatuz

Ikerkuntza **hedatzeko jardueren** garapenean laguntzea, jardunaldi, mintegi eta abarren bidez